

LIBURU ARRIGARRI BAT ETA BATUA

Ez liburu eta ez liburuaren idazlea ez dira aitzuta egon diranak. Ezagunak dira gaur be, baiña aldi baten oso ezagunagoak izan ziran.

Liburuaren idazleak amets arrigarri bat agertzen dau: Mundu guztiko izkuntza bat eta guztiak ulertuko dabena bat sortzea.

Uste izango dabe irakurleak esperanto dala izkuntza ori, baiña ez, ez da esperanto.

Idazleak izkuntza bat nai dau, beste guztien oiñarria dana, eta ori, bere ustez, ebraiera da. Barri oneik ik.RIEV'EN, 7, 423: Joakin Azpiazu).



Luis Thomassin da idazlea (1619-1695): Felipe Neri'ren oratoritarra eta eleizearen edestiari buruz idazten ugaria ta ona.

Liburuaren idazpuruak argi agertzen dau zein dan elburua. Ale bi dauz liburuak, lenengoan iztegi guztiak batzen dira ebraierearen iztegiagaz eta bigarrean bere bideak agertzen dauz: Izkuntza guztiak ebraieratik datoz eta Noe'ren ondorengoak zabaldu eben mundu osora ebraiera.

Izkuntzen artean bat euskerea da eta ez dau luze aztertzen gure izkuntza, bost orrialde guztiz, eta alegin osoa egiten dau ebraiereak eta euskereak dabezan antzeko itzak agertzen eta gure erdi-ugardean ebraieraz berba egin zala eta ortik sortu zala euskerea diño.



Thomassin'ek ez daki euskerarik, baiña ekarri daiguzan berak aitatzen dauzan gure itzak eta berak dakazen lez: deabruach, cerua, gorputza, cubac. Eta oneik ebraieratik zelan datozen aztertzen dau.

Beste leku baten latiñeko "oculus" aztertzen dau eta euskerazko "begi" ebraierako "ajin"etik datorrela diño.



Bere ustez, berba orreik eta beste asko iberoen arteko izkuntzatik datoz, erromatarrak ona etorri baiño lenagotik, kantabroen artekoa dan euskerea be bai eta guztiak datoz orduan emen berba egiten zan ebraieratik, euskerea be bai.

Iberia onetan egoan bibliak aitatzen dauan Tarsis eta inguruan egozan zeltak, jatorriz ebraiera zan izkuntza euken eta fenizioak ona etorri ziranean, emengo ebraierak indar barria artu eban, onein izkuntza antzekoa zala-ko.



Euskerea ebraieratik datorrela ziurtatzeko, askotariko aldakuntzak egiten dauz eta errez onartu be bai: "Aita", ebraieratik zarrak esaten eutsen "atta" da; "ama" ebraiera-ko "am"; "alaba" ebraierako "bat"/ alabea, "besoa" ebraierako "zroa"/brazo, "zaar" ebraierazko "zaken", "bertan", arin, ebraierazko "pata" "cergauti" ebraierazko "care".

Argi agiri da gure izkuntza ez dala aztertzen.



Gizon jakituna zan, baiña arlo onetan okerreko bidea artu eban.

Ara zer diñon Feller izkuntzalariak: "Ezin esan geinke jakituna ez danik, baiña iturrietara jo-bearrean, jatorrizko idazkiak beragandu baiño ez dau egin".

OLAZAR'tar Martin'ek

NASTEAN

IKASLE EUSKALDUNAK SALAMANKA'N

Ikastetxe Nagusi guztiak eta beti izan dabe ardurea ikasleak nondik etorten diran jakiteko eta orrelan toki bakoitzetik etozanakaz alkarteak sortzeko.

Salamanka'n, bear ba'da X Alfonso erregearen sasoiaren asita, 1411n. urtekoak dira lenengo agiriak, bagegozan lurraldez egindako alkarteak eta euren ordezkioak osotzen eben "Universitas".

Erri-ugarte osotik lau talde sortu

ziran aberriak kontuan dirala. Lenengo aberria Bizkaia zan eta onen lenengo ordezkioa Ipenarrieta'tar Mikel, iruñatarra... Orduan naparrak euskaldun lez artzen ziran.

Salamanka'ko euskaldunak, ez ziran asko baiña bai biziak eta arreak eta Salamanka'ko Ikastetxe Nagusian aberriak ospetsuena ziran. Esaterako, 1646n. urtean ikasle batzuk kanporatu egin ebezan eta euretatik lau ziran bizkaitarrak eta ain naste aundia sortu ebelako Araba'ko Batzar Nagusiak sartu ziran arazora (1635) eta eztabaida aundia izan eben Bernardo Hurta-

do de Mendoza zaintzeko Salamanka'ko ikastegi-epaileak eta Araba'ko Los Huertos erriko alkate ta epaileak.

Albiste asko dagoz euskaldun onei eta beste askori buruz.

Asko dira Salamanka'n erretorre izandakoen abizen euskaldunak, baiña banaka azertu bearko litzakez. Ori gure euskal jakintza argitzeko lan ona litzake.

Batez be jakingarria litzake Garcia de Salazar baten bizitza.

OLAZAR'tar Martin'ek